

Lanari Uztearen aurrean Langile Autonomoen Babesa (langabezia)

Nork eskura dezake prestazio hau?

Prestazio horiek lortu ahal izateko, langile autonomoak baldintza jakin batzuk betetzen dituela frogatu behar du.

Jarduera-bukaerak nahi gabekoa izan behar du, hots, ezin da jardueran jarraitu, nahiz eta jarduera horretan jarraitu nahi eta ahal den. Halaber, jarduera-bukaerak erabatekoa izan behar du, araubide berezian alta egitea eragin zuten jarduera guztiak etenda.

Langile autonomoen kolektibo hauek izan daitezke onuradun:

-LAAB (langile autonomoen araubide berezia, "RETA"), NLASB barne (nekazaritzako langile autonomoen sistema berezia, "SETA").

Eta orobat:

- Lan elkartuko kooperatibetako bazkideak
- Jarduera profesionala elkarrekin gauzatzen duten langile autonomoak
- IAB (norberaren konturako itsas langileen araubide berezia, "REM")
- MLA (mendeko langile autonomoak, "TRADE")

Zer sartzen da jarduera-bukaeraren ondoriozko babesean?

-Prestazio ekonomikoa.

-Kontingentzia arruntei dagokien kotizazioa ordaintzea.

-Prestakuntza-neurriak, lanbide-orientazioa eta ekintzailetzaren sustapena, enplegu-zerbitzu publikoaren kontura.

Jarduera-bukaeraren lege-egoera:

A) Kolektibo guztiei aplikatzen zaizkien kasu orokorrak:

- Ekonomia- eta lanbide-jarduera batean jarraitzeko bideraezintasuna eragiten duten arrazoi ekonomikoak, teknikoak, ekoizpen-arlokoak edo antolaketa-arlokoak, ondorengo egoeretako bat ere gertatzen denean:

- Urte oso batean jarduera gauzatzearen ondoriozko galerak sarrerren %10 baino handiagoak izatea, jardueraren lehen urtea kenduta.
- Zorrak kobratzeko betearazpen judizial edo administratiboak, sarrerren %30aren pareko balioan.
- Konkurtso-deklarazio judiziala.

- Negozioaren titularraren heriotza, erretiroa edo ezintasuna, titular horren familiartekoentzat, aipatutako negozioan familia-laguntzako eginkizunak betetzen dituztenean.

-Aldi baterako edo behin betiko jarduera-bukaera eragiten duen ezinbesteko kasua.

-Administrazio-lizentzia galtzea, lizentzia hori baldintza bada jarduera gauzatu ahal izateko, eta arau-hauste penalen ondorioz galdu ez bada.

-Aldi baterako edo behin betiko jarduera-bukaera eragiten duen genero-indarkeria.

-Ezkontideek negozioan batera lan egiteari uztea eragiten duen dibortzioa edo banantzea, eskatzaileak familia-laguntzako eginkizunak betetzen dituztenean.

B) Arrazoi gehigarriak langile autonomoentzat, kapital-sozietateko bazkide izateagatik (LAABen barruan, GSLOTBko 305.2.b) artikulua aplikaturik):

Borondatez kontra kontseilari-kargua edo sozietatearen administratzaile-kargua betetzeari edo sozietateari berari zerbitzuak emateari uzten dionean eta sozietateak bere jarduera aurrera eramatearen ondoriozko galerak izan dituenean, bere sarreren %10etik gorakoak, jardueraren lehen urtea kenduta, edo ondare garbia kapital sozialaren 2/3ra baino gutxiagora murriztu denean.

C) Beste arrazoi gehigarri batzuk mendeko langile autonomoentzat (MLA):

-Kontratuaren iraunaldia bukatzea edo obra edo bezeroari ematen zaion zerbitzua bururatzea.

-Bezeroak kontratua modu larrian ez betetzea.

-Bezeroak kontratua modu justifikatuan hutsaltzea.

-Bezeroak kontratua justifikaziorik gabe hutsaltzea.

-Bezeroaren heriotza, ezintasuna edo erretiroa.

Mendeko langile autonomo erregistratuez gain, prestazioa aitortzeko garaian, halakotzat joko dira beste langile autonomo batzuk ere, sarreren %75 gutxienez ematen dien enpresa edo bezero batentzat gauzatzen dutenean beren ekonomia- edo lanbide-jarduera, baldin eta haien jarduerak Langile Autonomoaren Estatutuari buruzko 20/2007 Legeko 11. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badu.

D) Beste arrazoi gehigarri batzuk, lan elkartuko kooperatibetako bazkideentzat:

-Kooperatibatik bidegabe kanporatzea.

-Sozietate-loturaren aldia bukatzea.

-Probaldian, kooperatibako zuzendaritza-organoen erabakiz, lan egiteari uztea.

E) Beste arrazoi gehigarri batzuk, nekazaritzako norberaren konturako langileentzat:

-Aldi baterako jarduera-bukaera, laborea edo abeltzaintzako jarduera ezinbesteko kasu batez aldatzen denean.

-Aldi baterako jarduera-bukaera, nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiak ezinbesteko kasu batez kaltetuta gertatzen direnean.

-Aldi baterako jarduera-bukaera, abeltzaintzako ustiategietan gaixotasunak desagerrarazteko behar den epean.

Prestazioa hartzeko eskubidea izateko eskatzen diren baldintzak:

-Afiliatuta eta alta-egoeran egotea jarduera-bukaeraren datan.

-Gabealdia beterik edukitzea, hots, jarduera-bukaeraren aurre-aurretik 12 hilabetez jarraian altan egon izana dagokion araubidean.

-Jarduera-bukaerako legezko egoeran egotea, hots, jarduera GSLOTBn aurreikusitako arrazoietakoa bat dela-eta bukatu izana.

-Jarduera-konpromisoa sinatzea enplegu-zerbitzu publikoarekin (GSLOTBko 300. artikulua).

-Erretiro arrunterako adina ez izatea (eskatzen den gutxieneko kotizazioa ez daukanean izan ezik).

-Baldin eta autonomoak jarduera-bukaeraren aurretik langileak bazituen bere kontura lan egiten, lan-arloko legedian arauturik dauden bermeak, betebeharrak eta prozedurak beteta eduki behar ditu.

-Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketa egunean edukitzea. Egunean ez badago, eta gainerako baldintzak betetzen baditu, zor dituen kuotak ordaintzeko proposatuko zaio, 30 eguneko epe luzaezin batean.

Iraupena eta zenbatekoa

Prestazioaren iraupena jarduera bukatu eta 48 hilabete lehenago kotizatutako hilabeteen arabera desberdina izan daiteke. Prestazioaren hileko zenbatekoa kotizazio-oinarriaren azken 12 hilabeteetako batez bestekoa da, jarduera-bukaera gertatzen den hilabetea barne.

Prestazioaren hileko zenbatekoa prestazioa arautzeko oinarriaren %70 da, muga hauekin:

Gehieneko zenbatekoa:

1.098,09€ seme-alabarik gabe.

1.254,96€ ardurapeko seme edo alaba batekin.

1.411,83€ ardurapeko bi seme-alabarekin edo gehiagorekin.

Gutxieneko zenbatekoa:

671,40€ ardurapeko seme-alabekin.

501,98€ seme-alabarik gabe.

Epeak eta izapideak

Eskabidea mutualitatearen aurrean aurkezteko epea jarduera-bukaera gertatzen den hilaren ondoko hilaren azken egunean bukatzen da, egun horretan aldi baterako ezintasuneko, amatasuneko edo aitatasuneko egoeran egonez gero izan ezik; kasu horietan, epea 15 egun baliodunekoa da, aldi baterako ezintasuneko, amatasuneko edo aitatasuneko prestazioa azkentzen denetik zenbatzen hasita.

Eskabide-eredua eta aurkeztu beharreko agiriei buruzko informazioa webgune honetako formulario eta inprimakien ataletik jaitsi daitezke.

Eskabidea eta gainerako agiriak Mutualiaren edozein zentrotako bulegoetan aurkez daitezke, edo bide telematikoz, helbide elektroniko honetara bidalita: CATA@mutualia.es. Zure prestazioaren izapideei buruzko edozein kontsulta egiteko, ondorengo telefonoarekin jar zaitezke harremanetan: 94.425.25.00 (4937 luzapena). Espedientea ebazteko legezko epea 30 egunekoa da, agiri guztiak edukitzen direnetik zenbaten hasita.

Prestazio-hartzaileen betebeharrak

-Beharrezko agiriak eta informazioa ematea, prestazioa aitortzeko, eteteko, azkentzeko edo berriz hasteko.

-Prestazioa eteteko eskatzea, eskubidea eteteko edo azkentzeko egoerak gertatzen direnean edo prestazioa hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzeari uzten zaionean, egoera horiek gertatzen diren unean, hain zuzen.

-Norberaren edo besteren kontura ez lan egitea, prestazioa hartzen ari den bitartean.

-Bidegabe hartutako prestazioak itzultzea.

-Agertzea, zuzendaritza-organoek hala eskatuta, eta enplegu-zerbitzu publikoaren esanera egotea, prestakuntzako, lanbide-orientazioko edo ekintzailtzaren sustapeneko jarduerak egiteko, halakoetara deitzen zaionean.

Prestazioa azkentzeko arrazoiak

-Prestazioaren iraunaldia bukatzea.

-Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legean jasotako zehapen oso larria ezartzea.

-Norberaren edo besteren kontura, 12 hilabetetik gorako lana egitea.

-IABn erretiro arrunterako edo teorikorako adina betetzea, erretiro-prestazioa lortzeko baldintzak betetzen ez direnean izan ezik.

-Erretiro-pentsioa edo ezintasun iraunkorra aitortzea.

-Bizilekua atzerrira aldatzea.

-Borondatez uko egitea.

-Heriotza.

Bateragarritasuna aldi baterako ezintasunarekin (ABE), eta amatasuneko edo aitatasuneko atsedenarekin

Jarduera-bukaera eta ABEdo amatasuneko edo aitatasuneko atsedena aldi berean gertatuz gero, interesdunak kobratu beharreko prestazioa honela arauturik dago:

Langilea ABEdan egotea eta jarduera-bukaera gertatzea:

ABEko prestazioa hartuko du, jarduera-bukaerako prestazioari dagokion zenbatekoan, eta azken hori kontsumituko du. Alta ematen zaionean, jarduera-bukaerako prestazioa jasotzeko baldintzak oraindik betetzen baditu, prestazioa hartuko du, eskubidez dagokion denboran, ordura arte kontsumitutakoa deskontaturik.

Langile autonomoa amatasuneko edo aitatasuneko atsedenean egotea eta jarduera-bukaera gertatzea:

Amatasuneko edo aitatasuneko prestazioa hartuko du, azkentzen den arte. Une horretan, baldintzak oraindik betetzen baditu, jarduera-bukaeratik dagokion prestazioa hartzen hasiko da.

Langileak jarduera-bukaerako prestazioa hartzea eta ABEdaren ondoriozko baja izatea:

Honelakoetan, bi kasu bereizten dira:

-Baja ABEdarekin birgaixotzeak eragin du: jarduera-bukaerako prestazioak duen zenbateko bereko prestazioa hartuko du, alta eman arte.

-Baja ez du ABEdarekin birgaixotzeak: jarduera-bukaerako prestazioak duen zenbateko bereko prestazioa hartuko du.

Bajan jarraitzen badu jarduera-bukaerako prestazioa eskubidez dagokion epea bukatzean, ABEko prestazioa hartuko du, OAEAParen (ondorio askotariko errenta-adierazle publikoa, "IPREM") %80ko zenbatekoan.

Langile autonomoak jarduera-bukaerako prestazioa hartzea eta amatasuneko edo aitatasuneko atsedenerako eskubidea sortzea:

Jarduera-bukaerako prestazioa eten egingo da, eta amatasun-prestazioa hartzen hasiko da. Azken hori azkendutakoan, hala badagokio, berriz hasiko da jarduera-bukaerako prestazioa hartzen.

Prestazioaren ordainketa bakarra

Jarduera-bukaeraren ondoriozko prestazioa eskatu eta gero, prestazio hori aitortu zaien langile autonomoak lanbide-jarduera bat egitekoak direnean, langile autonomo gisa edo lan-kooperatiba edo lan-sozietate bateko bazkide gisa, prestazioaren ordainketa bakarra eska dezakete, bai prestazioaren uneko balioaren ordainketa bakarraren modalitatean, bai Gizarte Segurantzaren kotizazio-kuotak ordaintzeko hileroko diru-laguntzaren modalitatean, bai bietan.

Baldintzak:

-Jarduera-bukaeraren ondoriozko prestazioa jasotzeko eskubidearen titularra izatea.

-Gutxienez, sei hilabeteko prestazioa hartzeko edukitzea oraindik.

-Kudeaketa-organoaren aurrean frogatzea lanbide-jarduera bat egingo dutela langile autonomo gisa edo lan-kooperatiba edo lan-sozietate bateko bazkide gisa.

-Ordainketa bakarraren eskabidea lan-kooperatiba edo lan-sozietatea eratzen den edo langilea hartara sartzen den egunaren aurretik aurkeztea, edo langile autonomo gisa jarduera hasten duen egunaren aurretik.